

Helduentzako bertso-eskola

Mezu honen bidez, aurten ere helduentzako bertso-eskola antolatuko dugula jakinarazi nahi dizuegu. Bide batez, informazioa helarazten dizuegu ahal duzuen neurrian zabalpenean laguntzeko.

Irailaren 30etik ekainaren 16ra, asteazkenetan 18:15etatik 19:15etara, Bagera Elkartean helduentzako bertsolaritza ikastaroa antolatu du Bagera Elkartek Bertsozaleen elkartearekin batera.

*Nola egiten da bertso bat? Zein da teknika? Ikasi ote daiteke lagun batentzako zorion agurrerako bertso bat egiten? Eta bat-batean kantatzen? Probatua eta frogatua dago baietz. Ikastaro honetan barruan denok dugun bertsolari txiki horri forma eman eta oinarrizko teknikak ikasteko aukera izango da.*

Bertan bertsolaritza eta bertsogintzaren atal ezberdinak landuko dira, saioen egituratik bat-bateko bertsolaritzara, bertsoen kritikatik bertso paperetara, teoria praktikarekin uztartuz eta tarteka gonbidatu berezien laguntzarekin.

**DATAK: Irailaren 30etik ekainaren 16ra**

**EGUNA: Asteazkena**

**ORDUA: 18:15etatik 19:15etara**

**LEKUA: Bagera Elkartean (Hernani kalea 15, behea)**

**IRAKASLEA: Beñat Gaztelumendi**

Ikasturte osoko matrikula 50€koa izango da.

**IZEN EMATEA:** [www.bagera.eus](http://www.bagera.eus)

Informazioa: [bagera@bagera.eus](mailto:bagera@bagera.eus) / [943005074](tel:943005074)

**Segurtasun neurriak bermatuko dira:**

- 10 laguneko taldea
- Maskara eraman
- Eskuak garbitzea
- Segurtasun distantzia mantentzea: 1,50 metrokoa